

Ebazpena: R 155/2022

Espedientea: 37/2015

Gasteizen, 2022ko azaroaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea osatzen duten Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek erabaki hau hartu dute:

ERABAKIA:

Bizkaiko Foru Aldundiak, (aurrerantzean BFA) ARSLren zerga-egoitza 2009ko uztailaren 2tik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) planteatutako gatazkari buruz, zeina 37/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- ARSL 2009ko uztailaren 2an eratu zuen SSSLk, egoitza Mendar (Madril) duenak. Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira ARSLren datu garrantzitsuenak:

- a) Bere egoitza soziala Bilboko DE kalean dago.
- b) RSG izendatu da administratzaile bakar, eta egoitza Madrilen du.

c) Bere helburu soziala film zinematografikoak sustatzea, ekoiztea, banatzea, salerostea eta erakustea da.

2.- 2013ko urriaren 9an, baja eman zitzaion Bizkaiko jarduera-errolan, eta Madrilera lekualdatu zuen egoitza –2013ko urriaren 30ean jaso zen eskrituran lekualdaketa–, hain zuzen ere, SSSLren egoitza sozialera. Ordura arte, ARSLren egoitza soziala merkataritza-lokalen eraikin batean zegoen. Dirudienez, lokal horrek jarduera eskasa du, eta bertan ere ez da ikusten ARSLk jarduerarik izan duenik: ez dago ARSLren identifikatzailerik bere egoitza sozialean, eta bertan ATk du egoitza; ez dago elektrizitate-, ur-, gas- eta telefono-konsumoei buruzko fakturarik etxe horretan; hornitzaile guztiak Bizkaitik kanpo daude, ASA gestoria izan ezik; ARSLk 2009an eta 2010ean jaulkitako fakturak Gipuzkoako bi erakunderenak dira, eta 2011n eta 2012an bi faktura baino ez zaizkio igortzen SSSLri, urte bakoitzeko abenduan. 2013an, eragiketen bolumenak gora egin zuen, nahiz eta ARSLk jasandako BEZ gehiena SSSLk jaulkitako fakturak izan, hala nola gasolina, hotelak, bidaiak, taxiak, dietak, nominak eta abar.

Izan ere, ARSLren jarduera nagusia zinematografiaren, telebistaren eta mota guztietako ikuskizunen sektoreetan ekoizpenerako argiztapen-ekipamendua alokatzea da. Jarduera hori SSSLk estatuan egiten duenaren ia berdina da, eta ARSLk Euskadira eraman nahi izan zuen, baina arrakasta eskasarekin.

Bestalde, ARSLk bere egoitza soziala zegoen lokala zuen 2009ko irailaren 30eko errentamendu-kontratuaren bidez, baina kontzeptu horrengatik 2011ko martxora arte errentak ordaintzea baino ez du justifikatzen.

3.- SSSLk ARSLri igorritako fakturetan eta hark emandakoetan ez da agertzen helbiderik Bilbon edo Bizkaian.

4.- ARSLren kontabilitatea, SSSLrena bezala, Madrilen eramaten eta artxibatzen da, eta haren fiskalitatea egoitza Bilbon duen ASA gestoriari kontratatu zaio.

5.- ARSLren banku-kontuak Madrilgo Erkidegoko udalerrien sukurtsaletan daude irekita.

6.- 2009tik 2012ra, ARSLren errenten hartzaileek Madrilen dute egoitza, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, berriz, enpresaren eta jardueraren helbidea Boadilla del Monte kaleko C zenbakian dago, Madrilen. Gainera, lau kotizazio-konturen titularra da, nahiz eta horietako batzuetan enpresaren eta horiei lotutako jardueraren helbidea Bilboko DE kalean zegoen.

7.- 2013ko eta 2014ko ekitaldietan aurkeztutako informazio-deklarazioetan, harremanetarako pertsona gisa agertzen da ASL merkataritza-sozietatea, Madrilen deklaraturako zerga-egoitza duena, eta harremanetarako telefono-zenbakia ere Madrilgoa du.

8.- 2014ko urtarrilaren 30ean, ARSLk eskaera bat aurkeztu zuen ZAEAn (036 eredua), Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko (enpresa-jarduera, 859. epigrafea, *Bestelako Ondasun Higigarrien Alokairua NCOP*). Jarduera 2013ko urriaren 9an hasi zen, eta egun altan dago oraindik.

9.- 2015eko maiatzaren 11n, BFAk ZAEARI jakinarazi zion ARSLren egoitza Madrilera aldatzeko proposamena. Ondorioak 2009ko uztailaren 2an hasiko ziren. ZAEAk partzialki baztertu zuen proposamena, Madrilera helbide-aldaketa onartzen zuelako, baina ondorioen atzeraeraginezko datarekin.

10.- 2015eko uztailaren 28an, BFAk gatazka aurkeztu zion Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari.

11- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikuluko horrek *zergadunen helbideratzeari buruz sor daitezkeen desadostasunak ebazteko eginkizuna* esleitzen dio.

2. - Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, BFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk ARSLren helbidea aldatzeko egindako proposamenean; 2009ko uztailaren 2tik aurrerantzean izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ARSLri.